



berdindu!

Lesbiana, gay, trans, bisexual eta
intersexualen arretarako euskal Zerbitzua

Servicio vasco de atención a lesbianas,
gais, trans, bisexuales e intersexuales

**BERDINDUREN KOMUNIKATUA TRANS 2021
DESPATOLOGIZAZIOAREN NAZIOARTEKO EGUNAGATIK.**

**BERDINDUREN KOMUNIKATUA TRANS 2021
DESPATOLOGIZAZIOAREN NAZIOARTEKO EGUNAGATIK.**

2018an, Osasunaren Mundu Erakundeak bere nahasmendu mentalen zerrendatik kanpo utzi zuen transexualitatea, baina, hala ere, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenak "genero-inkongruentzia" deitzen dio oraindik. Aitzitik, transexualitatea giza-aniztasunaren beste adibide bat da, eta ez du gaixotasun, nahasmendu, inkongruentzia edo bolada bateko kapritxorekin zerikusirik.

Azken urteotan, eraso LGTBIfobikoak areagotzen ari dira etengabe. Horrek agerian jartzen du transfobia gure gizarteetan agertzen dela aukerarik txikiena duenean.

Aurten, Berdindu Zerbitzu Publikoak dei egin nahi die herritar guztiei, pertsona transexualek beren egunerokotasunean jasaten dituzten eraso, diskriminazio eta zailtasun guztiak ezabatzeko lan egin dezaten, eta, horrela, guztion artean gizarte justuago bat eraiki dezagun, errespetuan oinarritua.